

noaua



“USURBIL KIROL ELKARTEA DEN-DENA IZAN DA GURETZAT”

Esther Arrojeria eta Jon Begiristain elkartu ditugu Oiardo kiroldegian / 08-09

ARGAZKIA: NOAUA

Maddi Noriega Zaldua:
"Koadernaketak egitea
terapia modukoa da
niretzat" / 05

**EAJ: "Mugikortasun
seguruagoa eta
irisgarriagoa
bultzatzen ari gara" / 17**


**EH Bildu: "Legealdiko
lehen bi urteak
emankorrak
izan dira" / 18**



**Zubietako eta Urdaiaoko
jai egitarauak / 12-14**



USURBIL
O P T I K A



PILARIK GABEKO
TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

4 Urteko Garantia

Interes Gabeko Finantzaketa
*Banketxeak onartzean

Entzumen azterketa
DOAN

Entzun telebista eta mugikorra zure audifonoetan

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



G15 AGUPACIÓN DE INMOBILIARIAS DE GIPUZKOA

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ONENA AURREZ AURRE!

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK



688 739 733

g15usurbil.eus info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea, 15 Usurbil, Gipuzkoa

Zuen iragarkia hemen

✉ publizitatea@noaua.eus

☎ **747-486-835**

Tren-geltokiko bigarren nasa berritua ere erabilgarri

Eraikitzen ari diren tren-geltoki berria guztiz martxan izateko urrats berri bat eman dute egunotan. Donostia alderako nasa berritua erabilgarri zegoen jada, baina asteartez geroztik Oriorantz trenez joatekoa ere bai. Geltoki zaharra igarota trenbidea kontuz igaro beharra dago bertara heltzeko. Seinalatzatua duzue nondik nora jo behar duzuen nasa berri horretara iristeko. Aurreikusimoduan, 2026. urte hasieran, geltoki berria irekitzean pasabide hau eta arrakatsak diren

gainerakoak ezabatuko dituzte. Izan ere, Etxealdiako zubi berriak N634 errepidearen eta trenbidearen gainetik igarotzea ahalbidetuko du Atalluraino. Eskilara eta igogailuen bidez jaitsi ahalgo da bertara nahiz tren-geltokira. Egitasmo honi lotuta, Etxealdiko zubira heltzeko San Esteban kaleko urbanizazio lanen bigarren faseari ekin asmo dio Udalak abuztu erdialdean. Aurreikuspenak betetzen badira, urria amaieran bukatu ditzakete obra hauek.



Uztailaren 15ean ireki zuten Oriorantz trenez joateko nasa berria. Ondoko argazkian, bertara heldutako lehen trenetako bat.

Garbigune mugikorra eta errefus bilketa udan

Txokoalden (uztailak 17-23), Santuenean (uztailak 24-30), Kalezarren (uztailak 31-abuztuak 6), herri erdigunean (abuztuak 7-13), Aginagan (abuztuak 14-20), Zubietan (abuztuak 21-27), Txokoalden (abuztuak 28-irailak 3), Santuenean (irailak 4-10).
• Errefusaren bilketa: uztailak 20 eta abuztuak 3, 17, 31.

Hurrengo aldizkaria, irailaren 5ean

Udako oporraldia tarteko, datozen asteotan ez da aldizkari-rikizango. Hurrengo, irailaren 5ean argitaratuko dugu.
Ordurako oharren bat duenak ohiko bideetatik helarazi dezake irailaren 1a baino lehen, epostaz edo telefonoz deituta: erredakzioa@noaua.eus 943 360 321.

1958an jaiotakoen bazkaria Artzabalgo jate txean

Urte luzez biltzeko izan duten ohitura berrituko dute aurtien ere. 1958an jaiotako herrikideak elkartzeko eguna jarri dute; irailaren 13an bilduko dira bazkaritarako Artzabalgo jate txean.
Antolatzaileek aditzera eman dutenez, izen-ematea haien kabuz bideratuko dute.

Odola emateko hurrengo hitzordua, irailaren lehenean

Odola emateko hurrengo hitzordua irailaren lehenean egokituko da, ohi bezala, 16:30-20:10 artean Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Kaioak karraka

Hau ez da normala, pentsatu nuen. Goizean jaiki eta betiko moduan enarak txio-txio entzun ordez, kaioak entzun nituen karra-karra. Etxe aurreko plazan zebiltzan dozena erdi bat kaio hara eta hona, mokoarekin lurrean aurkitzen zutena hartuz. Biharamunean Bordatxo aurrean beste hamar bat, haiek ere lurreko hondakin apurren ehizan. Hurrengo egunean berriro ere karra-karra entzun nuen, eta Artzabal baserriaren teilatuan bederatzi antxeta kontatu nituen. Geroztik ez ditut berriro ikusi eta enaren txio-txioka entzun dut ondorengo goizetan.

Orain kaioak Usurbilen? Kaleraino etorrita? Arraroa egin zitzaidan. Akaso Oria ibaiaren inguruan ikusi izan ditugu, baina kaleraino etorrita... nekez. Eta egun batetik bestera hainbeste... Zergatik ote zen pentsatzen hasi nintzen.

Usurbil ez da itsasertzeko herri bat, nahiz eta itsasotik urruti ez egon. Ez du porturik eta itsasontzirik eta ez du kaioak erakarriko lituzkeen arrain usainik.

Arrain usaineraz gain, zabor usainera ere gerturatzen dira antxetak. Zabortegien inguruan izugarritzko kaio pila ibiltzen da eta hango hondakinekin elikatzen dira. Ez da Usurbilen kasua, ordea. Edo... igual antzeko zerbai-



"Hirugarren egunean Artzabal baserriaren teilatuan bederatzi kaio kontatu nituen".

tek erakarrita etorriko ziren? Izan ere, Santixabel ondorengo egunetan ikusi nituen. Eta mokoak lurrera luzatuta plazako eta kaleko apurkak hartzen ari ziren. Horrek erakarrita gerturatu ote ziren ba Usurbila? Harriek eta musikak erakarrita ez ziren gerturatuko. Buruhandien atzetik ibiltzera ere ez. Zikinkeria non kaioak han izaten direla kontuan hartuta... zer pentsatu ematen du.

Gainera, zer esango dizuet ba, ez ditut estimu handitan kaioak. Arriskutsuak eta lotsagabeak iruditzen zaizkit. Arriskutsuak, duela 26 urte Eskozian Pasaiaiko arrantza-

**"ORAIN KAIOAK
USURBILEN?
KALERAINO
ETORRITA?... ZERK
ERAKARRITA?"**

le batzuek kontatu zigutenagatik. Lochinver herrian porturatuta zeuden eta itsasontzira gonbidatu gintuzten afaltzera. Marmitakoa jan bitartean kontu kontari ari ginela, arrantzaleen etsaierik arriskutsuena ez zela marrazoa esan ziguten, kaioa baizik, gosetuta dagoenean begietara erasotzen duelako. Geroztik beste begi batzuekin begiratzen diet, mesfidati.

Eta lotsagabeak ere iruditzen zaizkit, azken urteotan hondartzan ikusitakoagatik: esku artetik janaria hartzen! Edozein unetan pasatzen dira hegan gure buruen gainetik edo oinez aldamenetik. Eta eskuetan tuperra edo ogitar-tekoa edukiz gero, adi! Konturatzera gerturatu, mokoak luzatu, janaria hartu eta badoaz! Pentsa zer-nolako sustoa! Eta... disgustoa!

Aukeran, nahiago txio-txioak karra-karrak baino.

NIRE USTEZ

BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLOAK

Ez Buruntzaldean ez inon

Azken ostiral honetan, Andoaingo etxebizitza bateko paretan "Fuck LGTB" zioen gorroto pintada agertu da. Buruntzaldeko transmari-bollok ekin-tza hau eraso gisa ulertzen dugu, kolektiboarekiko eraso gisa, hain zuzen. Eta, bide honetan, erantzun kolektibo baten beharra ikusi dugu.

Diskurtso LGTBIAQ+ foboez gain, pintada arrazistak ere ageri dira. Lasarte-Oria mezua sionista, islamofobo, kolonialista eta arrazistaz beteriko esaldiekin zikindu zuten palestinar herriari elkartasuna adierazteko mura. Gainera, LGTBIAQ+ borrokaren izenean, diskurtso arrazistak zabaltzen dituzte muretan, eta ekin-tza hori guztiz gaitzes-ten dugu. Arrazakeriak ez du tokirik gurean. Ezin aipatu gabe utzi, Hernanin zein Andoaingo festetan gertatutako eraso eta diskurtso arrazistak. Ez dira kasu isolatuak, diskurtso eta eraso LGTBIAQ+ fobo eta arrazistak ematen ari dira gure herrietan eta ezin ditugu onartu. Hau guztia, eskualdetik harago gertatzen ari da. Faxismoa eta eskuin muturraren gorakadak ere batera, gorroto diskurtsoak gailentzen ari baitira gorputz eta bizitza zehatz batzuren aurka.

Ekintza horiek guztiak eraso gisa ulertzen ditugu eta, ez Buruntzaldean ez inon, ez ditugula inolaz onartuko, ezta pasatzen utziko ere. Antolatuta gaude eta erasoei erantzun kolektiboz erantzungo diegu.

Gora autodefensa transmari-bollo eta antiarrazista!





Herritarrek bildutako lantegiko irudiak erakusten, Anerreka ingurumen elkarteak Potxoenean deitutako bileran.

"Arazoa zaharra da, baina aldaketak izan dira"

Kezkatzeko moduko datu berri gehiago plazaratu ditu Anerreka ingurumen elkarteak, Osinalde industrialdean kokaturiko Ucin lantegiari buruz. Eusko Jaurlaritzak dituen etengabeko neurketei buruzko datuak partekatu ditu berriki, Potxoenean eginiko herri bileran.

Batetik, herritarrek aipatu lantegiak isuritako ke beltza argi ikus daitekeen grabatutako irudiak daude, bestetik, Anerrekak berak Eusko Jaurlaritzatik eskuratu ahal izan duen informazio ofiziala. Orain arte bildutakoa, gaiak urteotan emandakoa eta aurrera begira egin daitekeen aritzeko berriki herri bilera deitu zuen ingurumen elkarteak Potxoenean. Izan ere, gogorarazi zuten, "arazoa zaharra da, baina aldaketak izan dira". Horien berri eman zuten.

Anerrekak bildu ahal izan dituen datuen arabera, 2024an 17 egunetan gainditu zuen aipatu lantegiak baimendutako muga; maiatzaren 15ean, baimendutako muga hori baino 17 aldiz handiagoa izan zen isuritakoa, abuztu bukaeran zazpi aldiz handiagoa eta abendu hasieran 12 aldiz handiagoa. Anerrekak berri eman zuenez,

2023an hamar egunez gainditu zuen baimendutako muga, "baina soilik bi aitortu zituzten". Urte hartako abuztu amaieran, onartutakoa baino 25 aldiz handiagoa izan zen isuritakoa.

Isuna

Datu horiek jaso ahal izan ditu Anerrekak Eusko Jaurlaritzatik, 2016an Europar Batasunak eta 2020an Eusko Jaurlaritzak agindu ostean, etengabeko neurketak egiten hasi zelako lantegia. 2022ko urtarrilekoak dira

antza, ingurumen elkartearen arabera, neurketa horien lehen erregistroak.

Neurtutako datu horiek, lantegi horren teitlatuan iragazketa sistema duen tximiniari lotutako neurketak dira, ingurumen elkartetik nabarmendu zuten. Baina bigarren tximinia bat du, azaldu zuten eta bertatik isuritakoa iragazi gabe aireratzen da. Horregatik ziotenez, aipatu sistema duen tximinian eginiko neurketetan aipatu emaitzak erregistratu

badira, "pentsa zer ariko den gertatzen, iragazketa sistema ez duen tximinian".

Tarte horretan izan diren bi gertakari ere gogora ekarri zituen Anerrekak Potxoeneko bileran. Batetik, gai hauetan Eusko Jaurlaritzaren eskumena indartzen zuen lege berriaren onarpena 2021ean eta horri lotuta, bi urte geroago, Anerrekatik azaldu zuten, aipatu lantegiak Jaurlaritzari eginiko eskabidea, "txatarra gehiago galdatzeko". Baimena hilabete gutxira eman ostean, 2024ko martxoan, "Eusko Jaurlaritzak isuna jarri zion baimendutakoa baino gehiago galdatzeagatik".

Iragazketa sistema eskakizun

Anerrekak eginiko salaketek eragina izan dutela azaldu zuten. Elkartearen esanetan, "Eusko Jaurlaritzak onartu du arazo nagusia iragazi gabeko isurketak direla". Horretarako sistema falta dute. Egungo egoera alda daiteke laster. Lantegiaren isuriak etengabe neurtzen hasi ostean, 2022an, "Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzen dio labe itxian xurgatze eta iragazketa sistema berria ezartzeko". Asteotan jartzea espero dutela eman zuen aditzera Anerrekak. Horixe da nahi dutena, oraindik halakorik ez duen teitlatuko tximinian "instalakuntza duin bat jartzea", behingoz urte luzeetako arazoa konpontzeko.

Adi egoteko deia egin zuten halere. Irailetik aurrera, egoera zein izan daitekeen aztertzekotan geratu ziren. Bitarte horretan, orain arte Osinalde industrialdeko lantegi horrekin gertatzen ari dena azaleratzen lagundutako herritarren zaintza-sare horri eusteko deia egin zuten Potxoeneko bileran. Bereziki irailetik aurrera irudiak bildu eta informazioa zabaltzen laguntzeko gonbita egin zuten. Erakutsi zituzten irudien antzeko egoerak errepikatzen badira, ahalik eta lasterren partekatze deia egin zuten.

"PENTSA ZER ARIKO DEN GERTATZEN, IRAGAZKETA SISTEMA EZ DUEN TXIMINIAN"

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

"JAURLARITZAK ONARTU DU ARAZO NAGUSIA IRAGAZI GABEKO ISURKETAK DIRELA"

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA



Maddi Noriega kazetaria da lanbidez, baina denbora librean koadernoak egiten ditu.

"Koadernoak egitea terapia modukoa da niretzat"

MADDI NORIEGA ZALDUA ENKUADERNAKETAK

MimoZ koadernoak instagrameko erabiltzaileak badu pertsona aurpeirik. Maddi Noriega Zaldua herritarra ezkututzen da koloretako koaderno azalen atzean. Horra zer kontatu digun.

2019 amaieran hasi zinen koadernaketa lanekin Txiletik etorri zinenean. Zer ikasi zenuen han?

Urte hartan Txilera joan nintzen egonaldi luze bat egitera. Eszedentzia eskatu nuen lanean, eta beraz, han ere ez neukan eguneroko lan finko bat eta ordutegi jakin bat. Neure denbora betetzeko behar horretatik ikusi nuen enkoadernaketa ikastaro bat ematen zutela herrixo batean eta jakiteko gogoia piztu zidan. Izena eman nuen eta hantxe sortu zen bide honen lehen hazitxo. Paulina izeneko neska batek eman zigun ikastaroa eta libretatxoak egiten ikasi genuen. Libretatxo bat egin genuen lehen aldi hartan. Ho-

rrenbeste gustatu zitzaidan eta hainbeste denbora libre nuen, pixkanaka koaderno pila bat egin nituen hango egonaldian. Konturatu nintzen zenbaterainoko aukera ematen zidan neure buruarekin lasai eta gustura egoteko zer-baitetan zentratzeak. Esperientzia zoragarria izan da.

"EZ DUT INOIZ SENTITU BEREZIKI TREBEA IZAN NAIZENIK ESKULANAK EGITEN"

Lehenago koadernaketak atentzia piztu zizun edo Txilen hasi zen dena?

Ez dut inoiz sentitu trebea izan naizenik eskulanetan. Ez naiz gehiegi aritu inoiz, baina marrazten, adibidez, nahiko traketza naiz. Koadernaketaren kontua niretzat deskubrimendu handia izan da eta geroztik

"GAUZA GUTXIK EMATEN DIDATE AUKERA HAIN KONTZENTRATUTA EGOTeko"

eskulanak probatzeko aukera ere ireki dit. Txiletik bueltan, hemengo eguneroko zurrumbilo horretan sartu nintzen eta koadernaketari eustea erabaki nuen eguneroko azkartasun horri balazta bat jartzeko. Gauza gutxi ematen didate aukera hain kontzentratuta egoteko egiten ari naizen horretan. Terapia modukoa da niretzat. Ez da lan zaila, eta eginez hobetzen da. Ordubetxeko edo gutxi xego pasa dezaket horretan, eta lasai-lasai egoten naiz. Askok eta azkar egiteko ez daukat asmorik, presio edo urduritasunik gabe egitea da intentzioa.

Pandemiak harrapatu zintuen hilabete batzuk beranduago. Koadernaketari indarra eman zion horrek edo albo batera uztea?

Ettxera itzuli nintzenean, pandemiak bete-betean harrapatu gintuen. Etxean geundela, lan egiteaz gain, denbora koadernoak egiten pasatu nuen. Ikaragarri egin nituen garai hartan. Mugimendu handia izan zen garai hartan sare sozialetan sorkuntza prozesuekin. Nik ere instagram kontu bat irekitzea erabaki nuen orduan. Izena hautatzean, Mimos izena jartzea erabaki nuen. Uste dut badela mimos egiten dudana zerbait, eta niri ere neure burua mimatzeko tartea egiten dit. Nire izena eta bigarren abizenarekin ere lotura egiteko aukera ematen dit: Maddi Noriega Zaldúa. M eta Z letrak larriz jartzen ditut, gainera. Instagrama honako hau da: @mimoszkoadernaketa. Momentu politak pasa nituen pandemian proiektu horrekin. Pandemiaren testuinguru gogor hori kontuan hartuta diot, baina etxean pasa beharreko ordu pila hori modu atseginago eta eramangarriagoan bizitzeko aukera eman zidan. Jendea koadernotxoak eskatzen hasi zitzaidan eta oparitarako ere eskatu zizkidaten. Puntu horretan, kalterako hasi zitzaidan bilakatzen koadernaketen kontua. Mimos

→ eta lasai egitetik, presiopean lan egitera pasa nintzen eta nahiko itota sentitu nuen neure burua. Konturatu nintzen hori ez zela nire bidea, koadernoetatik beste zerbait lortzen nuen nik. Gorabehera dezente izan ditut ordutik. Azkenaldian ez ditut asko egin. Presaka eta korrika ibiltzen naiz leku guztietara iritsi ezinean, eta beraz, ez daukat nahiko nukeen denbora guztia koadernoak egiteko. Hala ere, beti saiatzen naiz tartetxo batzuk ateratzen.

Arterapia modura definitzen duzu zure lana. Terapiarako bidea aurkitu duzu koadernaketarekin?

Niretzat horixe izan da erabatean. Ezintasunei aurre egiteko tresna bilakatu da, eta horregatik izan behar du urduritasun eta estuasunik gabeko prozesua. Hala ere, eguneroko lanarekin uztartzea ez da erraza. Ahal dudanean egiten dut eta tarteak daukadanean. Onartu behar izan dut ezin diodala eskaini nahiko nukeen denbora guztia, zoritxarrez, baina saiatzen naiz neure terapiarako tarteak bilatzen.

Nola egiten duzu lan? Zein da prozesua?

Lehenik eta behin, kanpoko azala izango den paper ilustratua aukeratzen dut. Banan-banan aukeratzen ditut gehien gustatzen zaizkidanak, eta horiek erosten ditut. Horiek bildu ondoren, orri zuriak hartzen ditut. Bi neurritako koadernoak egiten ditut: orri zuri erdikoak edo laurdeneakoak. Hogeitazentzen ditut behin neurria aukeratuta koaderno handiagoentzat eta hamar txikiagoentzat, eta tolestu egiten ditut. Behin neurria finkatuta, moztu egiten ditut hala behar den kasuetan. Gauza bera egiten dut erdian jartzen ditudan koloretako paperekin. Kanpoko azalaren kolorearen arabera aukeratzen dut barruko paperaren kolorea ere. Behin hori dena eginda, kanpotik



Azkenaldian artistak egin dituen koadernoetako batzuk.

josten ditut. Argizaria duten hariak dauzkatzat, eta horiek ere azalaren kolorearen arabera aukeratzen ditut. Lau bat zulo egin ohi ditut punzoiarekin aurretik egindako marketan. Korapiloa egiten diet erdian eta ondoren zapaldu egiten ditut horretarako daukadan tresnatxoarekin. Izkinak normalean ez dira behar bezala geratzen, eta hori zuzentzeko parekatu egiten ditut kuterrarekin. Azkenik, borobilean moztzen ditut ertzak makinatxo txiki batekin. Pisua hartzen diot gainean koadernoari ondo tolestuta gera dadin, eta kito. Prozedura sinplea da. Lehenak traketsago ateratzen dira normalean, eta kuterra behar bezala erabiltzen ere denborarekin ikasten da.

Zure koadernoren bat interesatzen zaionak non eskura dezake eta nola?

"EZ DIOT NAHI NUKEEN DENBORA ESKAINTZEN, BAINA SAIAITZEN NAIZ TERAPIARAKO TARTEAK IZATEN"

Norbaitek nahi izango balu, neurekin harremanetan jarrita iritsiko ginatke adostasun batera. Egunerokotasunean ez ditut saltzen. Nire asmoa ez da honetatik bizitzea, eta momentuz behintzat ez dut apusturik egingo honetan aritzeko. Horrelako saltoak egitea ez da erabaki erraza, eta koadernoak saltzea ere ez da nire helburua dirua lortzeko.

Beti esaten dut dirua galdu egiten dudala prozesu honetan. Norbaiten urtebetetzea denean, edo gertukoek eskatzean oparitu egiten ditut. Lankideei koaderno asko eman dizkiet. Gure lanagatik beti besapean koaderno hartuta ibiltzen gara, eta behar ditugu. Dirua galdu bai, baina plazerez egiten dudan zerbait denez, harremana orekatua da. Ekonomikoki errentagarria ez bada ere, betetzen nau.

"EKONOMIKOKI ERRENTAGARRIA EZ BADA ERE, BENETAN ASEBETETZEN NAU KOADERNAKETAK"

Inoiz parte hartu duzu azoketan eta halakoetan?

Behin Lasarteko Euskal Jailetako azokan parte hartzeko proposamena egin zidaten eta jarri nuen. Koaderno pila bat egin nituen garai hartan izan zen eta stock zabala neukan. Ttakunen lan egiten dut, eta Ttakunek antolatzen duenez, animatu egin nintzen parte hartzera. Azoka batean parte hartzeko stocka izan behar da; ezin zara bi koadernorekin joan. Horrek egin beharra sortzen dit eta estres bat halaber beharrez. Egiten ditudanean sare sozialetan erakutsi eta ingurukoei oparituko dizkiet, baina ez dut konpromisoetan sartu nahi.

Pantailek geroz eta indar handiagoa duten gizarte honetan, beti daude dena paperean nahi duten erromantikoak ere.

Nik koaderno beti daramat gainean lanbidea dela medio, baina bestelakoan ere koadernotxo bat beti eramaten dut badaezpada. Papera edukitzea beti gustatu izan zait, orokorrean. Hedabideak ere paperean kontsumitzen ditut gehienetan eta liburuak irakurtzeko ere nahiago dut papereko euskarria. Ez naiz ebook eta halakoen oso zalea.



Esther Arrojeria Bera Berarekin jolasten. ARGAZKIA: BERA BERA

"Erabakia hartu nuenetik nahiko seguru izan naiz erabakiaz"

ESTHER ARROJERIA ETA JON BEGIRISTAIN

Esther Arrojeriak (Kalezar, 1994) hamairu denboraldiren ondoren eskubaloia uztea erabaki du, eta Jon Begiristainekin (Urdaiaga, 1985) bukatu ahal izatea "izugarria" izan dela adierazi digu.

Zein oroitzapen ekartzen dizkizu zelai hau zapaltzeak?

Esther Arrojeria (E.A.): Hemen hasi zen dena, eta gainera Berritzarekin (Jon Begiristain). Bera izan zen izan nuen lehen entrenatzailea mini-eskubaloian LH5en. Orduan hasi zen eskubaloiarekiko pasioa, eta hemen ordu asko pasa ditut: zelaian entrenatzen, jokatzeko eta harmailetan. Oroitzapen oso politak ekartzen dizkit, baita klubarekin ere. Gauza onak bakarrik etortzen zaizkit burura.

Zergatik hasi zinen eskubaloian, Esther?

E.A.: Herriak eskubaloia zela-tasun handia izan du beti,

eta jolasten hasi aurretik harmailetan ordu asko pasatuko nintzen. Gure aste-burutako plana harmailetara etorri eta zeuden partidak ikustea zen.

Nire anai-arrebak nagusiagoak ziren eta biek jolasten zuten, orduan etxetik ere zaletasun hori bazetorkidan.

"OIARDON HASI ZEN DENA ETA GAINERA BERRITZAREKIN (JON BEGIRISTAINEKIN)"

ESTHER ARROJERIA

Zer balorazio egiten duzu zure ibilbideaz?

E.A.: Ni lasai eta pozik nago egindakoarekin eta disfrutatut dut hori dela garrantzitsua. Ez nuen inoiz espero hamahiru urtez liga profesionalean jokatzeko aukerarik edukiko nuenik. Ez zen inoiz nire planetan sartzen eta horretatik bizi ahal izatea ametsa izan

"KANPORA JOKATZERA JOAN EZ IZANAREN ARANTZA DAUKAT"

ESTHER ARROJERIA

da. Batez ere lasai egindakoarekin. Denboraldi guztietan ahal nuen guztia eman dudalako eta taldeari ahal nuen zentzu guztietan laguntzen saiatu naizelako.

Ametsak aipatu dituzunez, badago eskubaloian bete ez duzun ametsik?

E.A.: Beno, ez dakit ametsa den, baina kanpora jolastera joan ez izanaren arantza daukat. Denboralditxo bat eduki nuen kanpora joango nintzela esaten nuela, baina azkenean beti erabaki dut hemen gelditzea. Seguruena hemen baino gusturago egotea zaila delako.

Ligako jokalaria onenaren saria jasotzeak erretiratzeko erabakia zalantzan jarri du?

E.A.: Erabakia hartu nuenetik nahiko seguru nengoen erabakiaz, ez dudalako utzi eskubaloian gaizki nengoelako, edo maila ematen ari ez nintzelako. Guztiz kontrakoa, nik uste denboraldi ona egin dudala, azken denboraldietan gehien disfrutatut dudana urtea izan da. Baina, sentitzen nuen erizaintzan aurrera egin behar nuela, eta eskubaloia eta Osakidetza oraintxe bertan bateraezina dira. Aukeraketa bat egin behar nuen eta lasai nago hartutako erabakiarekin.

Esther, eta etorkizunean zer?

E.A.: Momentuz zale bat gehiago eta erizaina. Gero hortik aurrera ez dakit. EITBkoek komentatu zidaten partidaren batera esatari bezala joateko. Partida bat komentatzea ez zait inporta. Nire burua ez dut inoiz ikusi entrenatzaile bezala, eta oraingoz ez da nire planetan sartzen.

Zer da Bera Bera zuretzat?

E.A.: Bera Bera izan da nire etxea azken hamahiru urte hauetan. Beti esan izan dugu klub handi bat izateaz gain, berezitasun handiena ematen diona da familia bat ere bagarela. Nik uste ez dela kasualitatea hemendik pasa diren

→ jokalaria askok hain oroitzen on izatea Donostiaz eta Bera Beraz. Antolakuntzaz gain, jendea oso ondo hartzen dute, jendea etxean bezala sentiarazten dute.

Zer oroitzen ekartzen dizkizu zelai honek?

Jon Begiristain (J.B.): Urte asko hemen jolasten, oroitzen asko. Denetik bizi izan dugu hemen, eta azkena gogoratzen dudana igoera fasea. Hori eta gero jolasteari utzi nion eta entrenatzaile bezala hasi nintzen. Oroitzen oso onak.

Betidanik izan zenuen argi entrenatzaile izan nahi zenuela?

J.B.: Egia esan ez. Martin Larrañagak esan zidan entrenatzaile bezala jartzeko, eta probatu nuen, eta orain hor jarraitzen dugu.

Lehenengo entrenatzaile izan nahiko zenuke?

J.B.: Egia esan, bigarren entrenatzailearen bizitza oso ona da. Aukera sortuz gero, ez dakit. Hori ikusi beharko da momentua sortzen bada eta buelta batzuk eman behar dizkiozu. Baina beno, ibili izan naiz beste talde batzuetan lehenengo entrenatzaile bezala eta ez naiz batere deseroso sentitzen.

Zer iritzi duzu zure ibilbideaz? Usurbilen hasi, gero Zarautzera, orain Bera Beran...

J.B.: Gustura nago eginda-koarekin. Klub desberdinak probatu ditut eta esperientzia desberdinak izan dira. Aurrena Usurbilen hasi nintzen 28 urteak arte, gero Zarautzen 50. urteurrenean mailaz igotzea lortu genuen, eta hortik Bidasoara joan nintzen.

Harrotasuna sentiarazten duzu Esther bezalako jokalaria zure taldetik pasa izanaz?

J.B.: Edozein jokalarik sortzen dit harrotasuna ikusita nola dauden gero. Estherren kasuan, adibidez, ikusten duzunean infantiletan, kadeteetan, ju-



Jon Begiristain, Bera Berako bigarren entrenatzailea. ARGAZKIA NOAUA

beniletan, seniorretan eta gero seniorretan nora iritsi den, nik oso harro esaten dut: "Nik Esther Arrojeria entrenatu dut". Eta hor dago, herrikoa eta onena niretzako.

Zer da zuretzat bigarren entrenatzaile izatea talde profesional batean?

J.B.: Egia esan, aurreko urtean lehenengo entrenamenduetan Imanoli (Alvarez, Bera Berako lehen entrenatzailea) urduritasun handia sentitzen nuela aipatu nion. Bai, entrenatzerako orduan berdina da, baina aurrean Argentinarekin internacionala izan den jokalaria eta beste bat Brasilekin, eta zure buruari galdetzen diozu "nik zer egiten dut hemen". Baina gero harreman pertsonalean ikusten dituzu beste jokalaria bezala direla, ez dago desberdintasunik. Beste profesionaltasun maila bat dago, baina azkenean

gustuko gauza bat egiten ari zara, eta lehen aipatu bezala, eroso eta gustura nago.

Eta betetzeko duzun amets bat eskubaloian?

J.B.: Oraintxe bertan ez zait ezer bururatzen. Ez diot mugarik jartzen nire buruari. Egia esan, ez nuen uste Alemanian egongo nintzenik lauko finalera sartzeko aukerakin, eta penalti batera gelditu izana ez zitzaidan sekula bururatu. Amets batean nengoen. Galdutako genuen eta ez ginen lauko finalera iritsi, baina ni gustura nengoen.

Nola definituko zenioten elkarri?

E.A.: Berritza niretzako entrenatzaile bezala beti izan da hain gertuko, hain maitagarria, beti adi. Lehengo urtera arte ez ginen berriro elkarrekin egon, baina hala ere beti egon gara kontaktuan

herrian topatzen ginenean. Berritza (Jon Begiristain) niretzako oso entrenatzaile berezia izan da, eta niretzako izugarria izan da nire etapa berarekin bukatu ahal izatea. Esaten dizudan bezala pertsona oso garrantzitsua izan da nire eskubaloian ibilbidean, eta Bera Beran azken bi urteetan egotea babes handia izan da niretzako.

J.B.: Hitz on guztiak esan ditu. Berdina pentsatzen dut. Jokalaria bezala, babes oso handia zen. Edozein gauzaz hitz egin genezakeen bai onerako bai txarrerako. Ezin dut adierazi dugun konfiantza maila, batzuetan gehiegi. Baina bera hor edukitzea niretzako oso pozgarria da, ohore bat.

Hurrengo denboraldian aurreneko denboraldian azaltzen garenean ingurura begiratu dut eta nire buruari galdetuko diot ea non dagoen Esther.

Usurbil Kirol Elkartearen zer izan da zuentzat?

E.A.: Denaren hasiera. Azkenean, hemen eskubaloian hasteko aukerarik izan ez banu ez dakit non egongo nintzen. **J.B.:** Eskubaloian mailan guretzako dena izan da Usurbil Kirol Elkartearen.

"MARTIN LARRAÑAGAK PROPOSATUTA HASI NINTZEN ENTRENATZAILE"

JON BEGIRISTAIN

"HARRO ESAN OHI DUT, NIK ESTHER ARROJERIA ENTRENATU DUT"

JON BEGIRISTAIN



Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzetan barrena, uztaillaren 10ean eginiko bisita gidatuan ateratako irudia.

Bizi osorako sei etxebizitza izango ditu Egurtzegik

Zaintzaileak eta zainduak elkarrekin bizitzen segitzea izango dute xede nagusi, bizi osorako etxebizitzok. Egurtzegiko sei bizilekueetatik lau usurbildarrentzat izango dira, Udalak Matiari alokairuan hartu baitzikio bien artean adosturiko hitzarmenari esker.

Bizi-esperantza handitu eta, honenbestez, zaintza beharrak ugaritu eta iraupenez luzatu diren honetan, zaintza beharra izanez gero ere, bizi proiektuetan hausturarik ez eragitea ez zaintza behar duenarengan, ezta haren zaintza arduratzen direnengan ere (izan zaintzaile afektiboa edota profesionala). Kalezarko zaintzadun etxebizitzetan auzune Egurtzegin zaindua izan behar duenarentzat, nahiz haren zain-

tzailearentzat elkarrekin bizitzen segitzeko aukera eskainiko zaie, horretarako egokitu dituzten "bizi osorako" deituriko sei etxebizitzetan. Matiaren jabetzakoak dira sei etxebizitzok baina haietatik lau Usurbilgo Udalak alokairuan hartu ditu Usurbilgo herritarrentzat, biek (Matiak eta Udalak) izenpeturiko hitzarmenari esker. Ondorioz, Udalak kudeatuko ditu lau etxebizitza horiek. Kudeaketa

horri begira, aitzindaria den araudia sortzeko lanean dihardu. Bertara bizitzera sar daitezkeen baldintza edota irizpideak zehaztuko dituen ordenantzen hasierako onarpena bozkatuko du udalbatzak, uztaillaren 24ko osoko bilkuran. Udazken hasieran zabaldu asmo dute izen-ematea interesdunentzat. Gero, udal gizarte zerbitzuen baremazio bidez esleituko dira. Urte amaieran edota datorren urte

hasieran etxebizitzok esleitu ematea aurreikusia dute. Xehetasunak udako oporraldi osteko aldizkarian eskainiko dizkizuegu.

Halere, hainbat herritarrek bizilekuok barrutik ezagutzeko aukera izan zuten uztaillaren 10ean, Udalak eta Matiak antolaturiko bisita gidatuan. Usurbil zaintza eredu iraultzeko egiten ari den bidearen baitan, indartzen ari diren baliabideen eskaintza txertatuko dituzte bizilekuok.

Irigarriak eta zaintzadunak

Zaintzadun etxebizitzak izango dira, "erabiltzaileen beharrei erantzuteko Egurtzegiko erreferentziarako pertsonak" izango dituzte, besteak beste. Diseinu bereziko etxebizitzak izango dira, "irigarriak, mugikortasun libre eta eroso" sustatuko dutenak. Zaintza behar duenak eta zaintzaileak logela bana izango dute komunarekin. Zainketa behar duenaren gela "laguntza-maila desberdinak behar dituen pertsonarentzat pentsatuta dago. Koloreei eta materialei dagokienez, tonalitateen kontrastea eta bereizketa hartu dirakontuan, ikusmen-arazoak edo dementziaren bat izan dezaketen pertsonen orientazioa errazteko". Espazio berean bateraturiko sukaldeak eta egongelak eta terrazak osatuko dute bizileku bakoitza.

**"URTE AMAIERAN
EDOTA 2026
HASIERAN
ETxebizitzok
ESLEITU ASMO
DITUZTE"**

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitarlekoak, raziok..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

lnaki
Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@lnakiturgintza.com · www.lnakiturgintza.com
600 024 825

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxadun estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL



Elur Zaldua eta Ekain Zuriarrain, Zubietako Jai Batzordeko kideak. ARGAZKIA: NOAUA

"Giza-proban, zortzi pertsona bi behorren aurka arituko dira"

ELUR ZALDUA ETA EKAIN ZURIARRAIN ZUBIETAKO JAI BATZORDEKO KIDEAK

Hiruzpalau urte daramatzate Zubietako jaiak antolatzen Elur Zalduak (Zubieta, 2004) eta Ekain Zuriarrainek (Zubieta, 2004). Azken detaileak falta zaizkie jaiak prest edukitzeko.

Zenbat denbora daramazue jaiak antolatzen?

Elur Zaldua: Nire kasuan, esango nuke hau hirugarren urtea dudala jai batzordean parte hartzen.

Ekain Zuriarrain: Antzeko hasi ginen biak jaiak antolatzen. Nik Gasteizen ikasten dut eta horregatik, hasierako bileretan eta bukaerakoetan laguntzen dut.

Eta noiz izaten dira hasierako bilera horiek?

Zaldua: Urtarrilean hasten gara Gabonetako oporraldia eta gero.

Zeintzuk dira aurtengo berriak?

Zaldua: Bakarlari bat ekarriko dugu, Julen Axpe komikoa, trikitilari eta panderoaren orde. Gero ere giza-proba egingo dugu zortzi pertsonako talde bat bi behorren kontra.

Zuriarrain: Aurten arratsaldeak betetzen saiatu gara. Usurbilgo elektro-txaranga

bati deitu diogu arratsaldetik giroa jarri dezaten.

Photocall-a zertan datza?

Zaldua: Aurreneko egunean beti herri afaria egiten dugu, eta aurten bizitasuna emateko Eleganzia abstraktua jarri dugu gai bezala jendea jantzita etorri dadin eta argazkiak

**"HERRI AFARIARI
BIZITASUNA
EMATEKO
PHOTOCALL BAT
ANTOLATU DUGU"**

ELUR ZALDUA

**"ANTOLAKETAN
JENDE GUTXI
GAUDE ETA DENA
DENON ARTEAN
EGITEN DUGU"**

EKAIN ZURIARRAIN

ateratzeko. Denak dira ongie-torriak.

Zuriarrain: Lehenengo egunean txupinazoa eta herri afaria izaten dira, eta normalean Zubietako jendea egoten da eta haiei bideratuta dago. Kanpotik datozenak parrandara elegante etorri nahi badute ere ondo.

Mendi-buelta herrikoia ere berria da. Zer da oinez, bizikletaz, nola da?

Zuriarrain: Eguraldi ona aprobetxatuz ibilaldia egitea aukera ona ikusten genuen musikaz girotuta eta hamaiketak batekin Andatza gainean. Lehiatu nahi dutenentzat, lasterketa egingo dugu.

Nola iritsi zaizue zuei indarke-riaren aurkako Usurbilgo udalaren protokoloa?

Zaldua: Jai batzordeko hiru pertsona udalarekin edukitako bilera guztietara joan dira, eta beraiek izango dira protokoloaren arduradunak. Leku seguruak zehaztea falta zaigu.

Zuriarrain: Leku seguruak zein izango diren gutxi gorabehera badakigu, baina asmoa da txosnetako txandaren bat egin behar dutenei bilera batean azaltzea protokoloa zertan datzan.

Jaietan nola egiten duzue jai batzordean egotea eta parranda egitea aldi berean?

Zaldua: Zaila da denoi gustatzen zaigulako parranda. Baina gure egun gogokoena lehen eguna izaten da. Jende gutxi etortzen da eta gehiago disfrutatzen dugu. Beste egunean normalean lan handia egiten dugu, eta bakoitzaren lan txandak errespetatzen saiatzen gara. Hala ere, beti disfrutatzen dugu.

Zuriarrain: Herri txiki bat izanda jaiak antolatzeko jende gutxi gaude, eta dena denon artean egiten dugu. Horrek, denbora guztian jende berdina lan egiteko adi eta prest egotea inplikatzan du. Beti disfrutatzen dugu jaiatz.

Zubietako jai egitaraua

Uztailak 24, osteguna

- 19:00 Jaien hasiera: Txupinazoa eta buruhandiak.
- Jarraian txoznen irekiera Elene eta Anuek girotuta.
- 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
- Jarraian PhotoCall herrikoia (Gaia: Elegantzia Abstraktua).
- Ondoren Itzal taldearekin dantzaldia.

Uztailak 25, ostirala

SANTIO EGUNA

- 09:00 Esnaldia, Donostiako txistulari bandaren eskutik.
- 11:00 Meza Nagusia.
- Ondoren Hamaiketako, Yoko Garbi elkartearen eskutik, eta soka-dantza.
- 18:00 Desafiyua.
- 19:30 Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Aner Euskitze, Amaia Iturriotz.

Gai-emalea: Zortzitan Bertso Eskola.

Uztailak 26, larunbata

JUBILATUEN EGUNA

- 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak plazan.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Yoko Garbi elkartearen eskutik.
- 16:00 Mus txapelketa (ordu erdi lehenago izen-ematea).
- 18:00 Giza proba erakustaldia.
- 19:00 Sardin eta piper jana plazan.
- 20:00 Bingoa.
- 23:00 Kontzertuak: Leihotikan, Trikidantz, Dj Hidalgo.

Uztailak 27, igandea

- 18:00 Bakarriketa Julen Axperen eskutik plazan.
- Jarraian Ibey Beatboxen emanaldia.
- 19:30 Krokepote txoznan.

Uztailak 28, astelehena

OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Ane eta Alazne trikitilariak alaituta.
- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 29, asteartea

UMEEN EGUNA

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 14:00 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.
- 16:00 Jolasen jarraipena.
- Ondoren txokolatada.
- 18:00 Erraldoi eta buruhandi erakustaldia, Usurbilgo Erraldoi Konpartsaren eskutik.

Uztailak 30, asteazkena

GAUPASA EGUNA

- 08:45 Mendibuelta herrikoia Andatzara.
- 14:00 Bertso bazkaria Yoko Garbi elkartean.

- 17:00 Herriko gaztetxoaren Yoko Garbi emanaldia Errebote plazan.
- 18:00 Ondoezik Elektrotxaranga.
- 22:00 Plan B kontzertua Gurdirocken eskutik.
- 00:00 Kontzertuak: Ezpalak, Herenegun, Dj Bull.

Uztailak 31, osteguna

SAN INAZIO EGUNA

- 10:30 Meza.
- 11:00 Zubietarren arteko errebote partida.
- 14:00 Zikiro jana.
- 18:30 Herri Kirolak.
- 23:00 Herriko jaien amaiera, traka eta suziriekin.

Oharrak:

- Jaietan gerta litezkeen ez-beharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
- Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistarik.





ALAMANDEGI JATETXEA

• Ogitartekoak, pintxoak, razioak, plater konbinatuak...

Ondo pasa Santioetan!

Tel. 943 03 12 75 Urbitarte kalea 1, 20160 Zubieta


Ondo pasa SANTIOETAN!



TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
· HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK
· KARTA · AFARI MUSIKALAK
OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK

Araeta
sagardotegia

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049



Irvin Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta 943.361.229



bugati
ERRETEGIA

**OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETEGIA
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA**



Arrapide Pasalekua, 74
20160 Zubieta (Donostia)

📞 943 37 76 62 📱 Bugati Erretegia



Abuztuaren 1ean, arratsaldeko 17:30ean hasiko dira helduen jolasak.

Oilasko biltzaileak berreskuratuko dituzte Urdaiagan

Urte luzeetan hutsik egin ohi ez zuen eta hamaika bizipen eragindako oilasko biltzaileen irteera berreskuratu du San Estebango jai batzordeak ate joka dituzten festetarako. Aurtentzen hiru egunez ospatuko dituzte auzoko festak; abuztuaren 1etik 3ra. Oilasko biltzaileak emango diete hain zuzen, hasiera ofiziala jaiei. Hortik aurrera, auzotarren bilgune izango diren otorduak programatu dituzte; bertso-afaria tartean.

Abuztuaren 1ean, arratsaldeko 17:30ean hasiko dira helduen jolasak.

Abuztuak 1, ostirala: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 07:00 Oilasko biltzaileen gosaria, 07:30 Oilasko biltzaileen irteera.
- 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.

- 17:30 Helduen jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 21:30 Bertso-afaria: Jon Maia eta Amaia Agirre. Txartelak aurrez erosi daitezke Txirrista tabernan.
- 23:30 Mugi Panderoa erromeria.
- Ondoren, Dj Arraultze ta Xolomo.

Abuztuak 2, larunbata: Umeen Eguna

- 10:30 Umeen jolasak.
- 13:30 Umeen bazkaria batzordearen eskutik.
- 15:30 Mus txapelketako izen-ematea.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 16:00 Umeen tailerrak.

- 19:00 Buruhandi eta erraldioak, Lauburu konpartsaren eskutik.
- 19:00 Patata tortilla lehiaketa.
- 21:30 Herri afarira, norberak berea eramanda. Edaria, kopa eta kafea batzordearen esku.
- 23:30 Kontzertuak: Txiske-roak, Ameba.
- Ondoren, Dj Blin.
- Ondoren, mozkor jolasak.

Abuztuak 3, igandea: Sanixteban Eguna

- 11:00 Meza.
- 11:45 Dantzariak.
- Jarraian, patxintxi eta ardogoxo banaketa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 14:00 Herri bazkaria. Norberak berea eramanda. Batzordearen esku, edaria, kopa, kafea.
- 18:00 Herri kirolak.
- 19:30 Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak.
- Festen amaierako traka.

Oharrak:

- Jai batzordea ez da festetan gerta litezkeen ezbeharren kargu egingo.
 - Ez da inolako erasorik onartuko.
- Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

Atxegaldeko jaiak, abuztua agurtzeko

Abuztuko azken ostiralean hasiko dira jaiak. lazko eskaintzaren antza izango du aurtengo egitarauak.

Xanistebanekin hasi eta ohi bezala, Atxegaldeko festekin agurtuko dugu abuztua. Azken asteburua iaz baino geroago egokituko da aurtentzen. Ondorioz, hilaren 29tik 31ra ospatuko dira auzoko festak. Hiru egunotako ekitaldien eskaintza egituratzeko lanetan ari da jai batzordea. Hurrengo asteetan plazaratuko du hitzordu guztien ordutegi zehatza.

Antolatzaileak aurreratua dutenez, ordea, nagusiki iazko eskaintza ekarriko du bueltan.

Atxegaldeko festetako plazara. Abuztuko azken ostiralari jolasean ekingo diote. Bazkaritarako bildu ostean, elektrotxaranga ekingo duen kalejirak txupinazorako bidea ekingo du. Jaien hasiera ofiziala ospatuko da gero eta une hori, buruhandiek girotuko dute.

Larunbatean, umeak nagusi

Biharamunean, haurrei zuzenduriko ekintzak nagusituko dira; jolasak, txokolate



Toka, Atxegaldeko jaietako klasiko bat. Abuztuaren 29tik 31ra ospatuko dira.

jana, buruhandiak... Helduentzat mus txapelketa izango da eta gauean, auzokideen bilgune izango den afari musikatu.

Amaitzeko, iganderako txapelketen eguna iragarria dute; toka edota patata tortilla

lehiaketekin. Bi parranda gau izango dituzte Atxegaldeko jaiak; bietan musika taldeak eta djak izango dira.

Aipatu moduan, egitarau zehatza datozen asteetan plazaratuko du Atxegaldeko jai batzordeak.



Udal ordezkariak Aginaga biziberritzeko estrategikoak izango diren Eliza Zaharraren eta Arrateren atarian.

"Aginaga biziberritzeko proiektu integrala jarri nahi dugu martxan"

Aginaga biziberritzeko bidean, urrats garrantzitsu baten berri eman zuen agerraldi bidez aste hasieran EHBilduren udal gobernu taldeak; norabide horretan eragingo duen proiektu komunitario eta kooperatiboa abiaraztera doazela iragarri dute.

"Aginaga biziberritzeko proiektu oso eta integral bat jarri nahi dugu martxan. Aginagako beharrei modu komunitario eta kooperatiboan aurre egin diezaion nahi dugu", adierazi zuen aste hasieran EHBilduren udal gobernu taldeak Eliza Zaharrean eginiko agerraldian. Horretarako, iragan ekainaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, uztailaren 15era arte aurkez zitezkeen proiektuak proposatzeko deialdi publikoa argitaratu zuen Usurbilgo Udalak.

Gerora, proiektu irabazlea hautatutakoan, "lankidetzaz hitzarmenaren bidez, bi udal ekipamendu lagako zaizkio" proiektu irabazleari: erabilera

sozial komunitarioarako baliatzen segitzea bermatu eta "Aginagako astialdi eta kultura programatzaileren sarea zaindu eta indartuko" duen Eliza Zaharra eta "taberna, jantoki eta denda izango duen" Arrate Ostata, herritarrek saretu eta elkar zaintzara bideratuko dena. Uda garai hau baliatuko dute Arrateko egun-

go espazioa egokitzeke. Eliza Zaharra ere zaharberritzen jarraitu asmo dute, urriko jaien ostean. Horrez gain, "650 Usurbil Bizi turismoko proiektuaren baitan, Erriorearen Usurbil garatzea da gure hurrengo lehentasuna eta adinekoekin bizi-kalitatea hobetu eta zaintza sare komunitarioak sustatzeko proiektua martxan jarri

"AGINAGAKO BEHARREI MODU KOMUNITARIO ETA KOOPERATIBOAN AURRE EGITEA NAHI DUGU"

"HERRI NORTASUN PROPIOA DUEN AUZUNEA IZANIK, EGITASMO ETA ESKAINTZA ZABALA DU"

berri dugu Zabaltzen Kooperatibarekin batera".

Erronkei erantzun nahia

Egitasmo hau, Udaletik auzo bizigarriak sortzeko erronkarekin erabat bat dator udal gobernu taldearen esanetan. "Euskal Herriko landa eremu askok bizi duten antzeko bilakaera bizi du Aginagak", gogora ekarri dutenez, etxebizitza, tokiko zerbitzu edota enplegu aukera murrizten edota komunitate harremanen ahultzearen ondorioz. Halere, "herri nortasun propioa duen auzunea izanik, jai eta kultur aisialdiarekin lotutako egitasmo eta eskaintza zabala du". Horrez gain, "auzokideen arteko elkartasunak eta belau-naldien arteko harremanek lagundu dute Aginaga aurrera eramaten eta hartueman horrek bideratu du lehen aipatutako zailtasunei edo erronkei aurre egiteko nahia", tartean, 2022an Aginaga Biziberritzen izeneko prozesua, Aztikarren bidelaguntzarekin. Aginagako beharrak identifikatzeko 136 bizilagun (biztanleen %36a) partaide izandako galdetegia landu zuten. Bertan, hainbat kezka plazaratu zituzten aginagarre; "oinarrizko erosketak egiteko denda baten falta, zerbitzuen galera orokorra, etxebizitza falta ere aipatzen zen, garraio publiko eta komunikazio eskasa duela Aginagak eta kale giroaren eta herriko bizitzaren falta".

Diagnosi horrekin bat egiteaz gain, beharrezko ikusi zuen Udalak konponbideak bilatzeko "estrategia partekatu bat eratzea", Aginagako herritar eta eragileekin. Hortik koordinazio mahaia eratu dute. Eguneroko beharrei erantzuten ari dira eta, aldi berean, epe luzera begira Aginagako biziberritzeko proiektua lantzen. Horrez gain, Aginagan sortua duten herri kooperatibak, besteak beste, "toki entitate txiki bat sustatzeko asmoa du eta horretaz ere ari gara hizketan elkarrekin".



Abuztuaren 1etik 17ra itxita egongo da kiroldegia.

Udako ordutegiak eta abuztuko itxierak

Datozen asteotan zerbitzuetan izango diren ordutegi aldaketen eta itxieren berri duzue segidan.

Sutegi udal liburutegia

Irailaren 5era arte: astelehenetik ostiralera: 09:30-14:00.

Bus-taxia

Uztailaren 30era arte 7:30ean, 10:30ean eta 13:30ean abiatzen diren zerbitzuei eutsiko die, arratsaldeetan ez da Bidez Bide zerbitzua eskainiko. Abuztuaren ez da izango zerbitzurik. Irailaren 1etik aurrera, ohiko ordutegian eskainiko da. Informazio gehiagorako: 630 643 596.

KzGunea

Uztailaren 30era arte goizez irekiko dute, abuztuaren 1etik egongo da eta irailaren 1etik aurrera, 16:00-20:00 artean zabalduko dute.

Oiaro kiroldegia

• Abuztuaren 31ra arte udako ordutegian zabalduko dute (abuztuaren 1etik 17ra izan ezik, itxita egongo baita kiroldegia):

- Lanegunak: 07:00-20:15 (igerilekua 20:00).
- Larunbat, igande eta jaiegunak: 09:00-13:00 (igerilekua 12:45).
- Irailaren 1ean, ohiko ordutegian irekiko dute berriz Oiaro kiroldegia.

Garbigunea

Irailaren 15era arte ordutegi hau izango du Garbiguneak: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean irekiko dute, igande eta jaiegunetan ez.

Euskotren

Euskotrenek irailera arte udako ordutegia izango du indarrean (larunbat, igande eta jaiegunetan, 30 minuturo eskainiko da tren zerbitzua eguerditik iluntzera).

Lurraldebus

Lurraldebusak abuztuaren udako ordutegian izan ohi du indarrean.

Doako energia-diagnostikoak Beterri-Buruntzako enpresentzat



Diagnostikoaren bidez, "aurrezteko aukerak identifikatu ahal izango dira".

Beterri-Buruntza mankomunitateak eskualdeko enpresen iraunkortasuna eta eraginkortasun energetikoa sustatu nahi ditu. Interesa agertzen duten guztiek, doako energia-diagnostikoa egiteko aukera izango dute.

Datozen asteetan, doako energia-diagnostikoak egingo dira bertako enpresei zuzenduta. "Helburua da energia-kontsumoa murriztea eta energiaren kudeaketa eta kontrola hobetzea zuen instalazioetan", Beterri-Buruntza

mankomunitateak aditzera eman duenez.

Diagnostikoaren bidez, "aurrezteko aukerak identifikatu ahal izango dira". Hala nola, "kontsumo handieneko puntuak aztertu; edota zure enpresara egokitutako neurri praktikoak proposatu".

Parte-hartzeko edo informazio gehiago eskatzeko, idatzi eposta helbide honetara, iraunkortasuna@beterri-buruntza.eus edo telefonoz deitu bestela, 688 864 133 zenbakira.

Gutxitze bidean segitzen du langabetu kopuruak Usurbilen

Udaberriaz geroztik, etenik gabe murrizten doa lanik gabeko herritarren kopurua Usurbilen. Estatuko Enplegu Zerbitzuaren ekaineko datuek joera hori berretsi dute. Etengabekoa da udaberriaz geroztik, Usurbilgo langabetu kopuruan izaten ari den murrizketa. Lanik gabeko 178 herrikide zeuden iturri ho-

rren arabera, joan den hilabetearen Usurbilen.

Ia adin tarte guztietan eta gizonetako zein emakumezkoetan gutxitu da lanik gabeko herritarren kopurua. Hala ere, gizonetakoak baino (77) emakume langabetu gehiago (101) izaten segitzen du Usurbilek.

Otar-Goxo
Elizkargariak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Parti
bazarriak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

EAJ-PNV: "Usurbilek anbizioz ekin dio trenbide sistema berritzeko lanei"

Segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeaz gain, trenen maiztasuna areagotu eta bidaia-denborak murriztuko dira.

"Usurbilgo etorkizuneko mugikortasuna eraldatuko duen trenbide sistema" sustatzeaz harro dago Usurbilgo EAJ-PNV alderdia. Eusko Jaurlaritzak 9,3 milioi euroko inbertsioa burutuko du "hiru trenbide-pasagune kentzeko eta, bestetik, hirigunearen eta trenbide-instalazio berrien arteko lotura hobetzeko. Alderdi jeltzalearen bultzadaren eta urte luzeetako plangintza eta proiektuen idazketaren ondoren, Usurbilek anbizioz ekin die martxan dauden tren azpiegituraren lanei". Ondo bidean, Usurbilgo tren geltoki berria 2026ko urte hasieran egongo da martxan.

EAJ-PNVrentzat funtsezkoa da segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea, "baita N-634 errepidearen gaineko lotura erraztea ere". Proiektu honen bitartez, "egungo trenbide-hesia kenduko dugu, eta trena arazo izatetik aukera izatera pasatzea nahi dugu. Aldi berean, hirigunea eta Ingemar industrialdea hobeto lotuko ditugu".

Segurtasunaz eta irisgarritasunaz gain, trenen maiztasuna ere areagotu egingo da eta bidaia-denborak murriztuko dira. Nola? Aginagako saihezbidearen bitartez, besteak beste. "Hala, 1,3 kilometroko tunel berri bat eraikiko da, bide bikoitzarekin, linearen gaitasuna handitzeko eta Zarautz eta Donostia arteko maiztasuna bikoizteko (egungo 30 minuturoko zirkulazioak 15 minuturo izango dira)",

alderdi jeltzaleak nabarmendu duenez. "Egungo trazadura bihurtzera, Oria ibaia inguratzen duena, tunel zuzen berri batek ordeztuko du, eta, horri esker, egungo ibilbidea berreskuratu ahal izango da oinezkoentzat edo bizikletentzat erabiltzeko".

Trenbide sarea hobetzeko ahaileginarekin batera, badira EAJ-k nabarmendu nahi dituen beste ekimen urbanistiko batzuk. Txokoaldeko zubi berria, esate baterako. "Zubiaren zoru berriari esker, obraren eta auzoaren beharrei hobeto erantzun zaie; izan ere, duela gutxi URAk eta Añarbek Aginagako saneamendu sare berria amaitu dituzte eta hodiak egoki integratuko dira bertan".

"Usurbilgo haur hezkuntza publiko, doako eta kalitatezkoaren alde"

Ekainaren amaieran, EAJ-k Zurekin izeneko argitalpen bat plazaratu zuen eta bertan ageri da mugikortasunari buruzko analisia. Eta horrekin batera, beste bi kontu ere nabarmendu nahi ditu alderdi jeltzaleak.

HAUR ESKOLAZ: "EGUNGO SISTEMA JASANGAITZA DA ETA AHALEGIN EKONOMIKO ESANGURATSUA DA UDALARENTZAT"



"Legealdiaren erdian, gobernatzen dugun erakundeetatik lanean jarraitzen dugu, eta herri mailan, ahal den guztietan, Udal Gobernuarekin elkarlanean". EAJ-PNV

Hezkuntza da horietako bat. Azken urteetan egin bezalaxe, EAJ-k Usurbilgo haur hezkuntza publiko, doako eta kalitatezkoaren aldeko apustuari eusten dio.

Udal haurtzaindegiz zerbitzua Haurreskolen Partzuergoan sartzeko beharra azpimarratzen du, "bere doakotasuna eta kalitatea bermatzeko". EAJren esanetan, "egungo sistema jasangaitza da eta ahailegin ekonomiko esanguratsua da udalarentzat". Partzuergoan sartzeko zama arindu eta beste udal-zerbitzu batzuk indartzeko baliabideak berreskuratuko lirake.

Prozesua egungo langileen eskubideak bermatuz egin daitekeela dio EAJ-k. "Lanean jarraituko dugu Udal Gobernuak beharrezko erabakiak hartzen eta ezinbesteko aurrerapen hori gehiago atzeratu ez dezan".

ZAINTZAZ: "HELBURUA ARGIA DA. PERTSONAK ERDIGUNEAN JARRIKO DITUEN SISTEMA ERAIKITZEA"

"Erreferenteak gara arreta pertsonalizatuan eta komunitarioan"

Zainketen arloari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahailegin handiak egin ditu azken urteotan. EAJ-ren hitzetan, "helburua argia da: Pertsonak erdigunean jarriko dituen sistema eraikitzea, haen nahiak, beharrak eta bizi-proiektuak errespetatuz. Tokira errotzearen, arreta pertsonalizatuaren eta etxean egotearen aldeko apustua egiten dugu, betiere egoerak ahalbidetzen badu".

Usurbilgo Udalarentzat ere lehentasuna du gai honek eta Foru Aldundiarekin batera elkarlanean ari da hainbat arlotan. EAJ-k dioen moduan, "Zaintza HerriLab eta Egurtzegi zentroaren aldeko apustuari esker, erreferenteak gara arreta pertsonalizatuan eta komunitarioan".

Usurbilgo EAJ-PNV-k bere egiten du tokian tokiko eta Aldundiaren lankidetzaren estuan eraikitako politika publikoekiko konpromisoa. "Zaintzen duen, zaintzen uzten duen eta pertsona guztientzako etorkizun duinago, bidezkoago eta iraunkorrago baterantz erabakitasunez aurrera egiten duen udalerrin baten ikuspegiarekin bat gatzon".



EHBilduren udal gobernu taldeak, udaletxe atarian.

"Legealdiko bi urte hauek zinez emankorrak izan dira"

2023-27 legealdia erdibidera heldu da eta lehen bi urteotako balantzea plazaratu du udal gobernu taldean den Usurbilgo EHBilduk. 2023. urteaz geroztik, "gauzatutako proiektuak eta martxan jarritakoak asko dira".

Agintaldi hau hasi berritan osaturiko Legealdi Planean 120 egitasmo berri bideratzea proposatu zuen udal gobernu taldeak, une hartan azaldu zuten moduan, "herri gisa finkatu ditugun misioei erantzuteko eta bide batez, Usurbil bizigarriagoa, zaintzaileagoa, jasangarriagoa eta berdinzaleagoa eraikitzen jarraitzeko". Haietatik jada 74 gauzatuak edo abian daudela berri eman du udal gobernu taldeak, Legealdiko Planeko proiektuen %62a hain zuzen. 2027ra bitarte, beste 28 bideratu asmo dituzte (%23a) eta "arrazoi ezberdinak tarteko, ia seguru egingo ez direnak 15 neurri izango dira". Plan-gintza horretatik kanpo, bes-

talde, 34 egitasmo gehiago landu edo martxan jarri dituzte. Datuon harira, udal gobernu taldetik nabarmendu dutenez, "bi urte hauek zinez emankorrak izan dira".

Zaintza eredua eraldatzen

Aipaturiko egitasmo horien artean, badira batzuk aurreko legealdian lantzen hasitakoak

"2023-2027 URTE ARTEKO LEGEALDI PLANEKO 74 EGITASMO GAUZATUAK EDO ABIAN DAUDE"

eta agintaldi honetan gauzatu dituztenak: Txirikorda belau-naldiarteko etxebizitza komunitarioa, Kalezarko Pelaioenea (bertan da Emakumeen Etxea eta kalezartarren udal ekipamendua) edota handik hurbil, irisgarritasuna nabarmen hobetu duen Egurtzegi pareko igogailua eta autobus geltoki berria.

"2027RA BITARTE, LEGEALDI PLANEKO BESTE 28 EGITASMO BIDERATU ASMO DITUZTE (%23A)"

Bestalde, Usurbilgo herri nortasun, balore eta proiektu eraldatzaileetan oinarrituriko 650 Usurbil Bizi proiektua NOAUA! K.E. dinamizatzen hasi zenetik 2023an egindako 59 bisitek 479 bisitari erakarri zituzten; iazko 60 bisitek 700 bisitari. Tarte horretan, gainera, Zumetaren frontoi atzealdeko muralak betetako 50 urteen harira antolaturiko eskaintza zabala nabarmendu dute udal gobernu taldetik, Usoa Zumetarekin eta Kultur-gunearekin lankidetzan.

Zaintza da eskuartean duten beste herri erronka, udal gobernu taldearen esanetan Usurbil herri aitzindarian bilakarako duena alor horretan ere. Bestelako zaintza ekosistema bat eraikitzeko bidean, etxek etxeko zerbitzu eraldatuaren lanketa edota Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzak aipatu dituzte. Usurbil herria herri bilakatzeko bidean, aldiz, HarEman proiektua edota aholkularitza juridikoa.

Udal zerbitzuko hobekuntzak

Udala herriarengana gerturatu eta eskaintako zerbitzua hobetzeko ere hainbat egitasmo abiarazi dituzte. Batetik, teilatua konpontzen hastera doaz, udal espazioa berrantolatuko dute, udal artxiboa digitalizatu... Udal lantaldeari dagokionean, 25 lanpostu egonkortuta "nabarmen murriztu da langileen interinitate tasa".

Horrez gain, gobernantza eredua osatzen ari dira herri eragileekin lankidetzan. Hezikuntza gaiei dagokienean, batetik, hasieran urte garai zehatzetan irekitako DYaren egoitzako ikasgela urte osoan zabaltzera igaro dira. Etorkizuna definitu dute beste bi egitasmorentzat; udal haur eskola partzuergora igaroko da "Eusko Jaurlaritzaren finantziario etenaren ondorioz". Datorren ikasturtean, eraikina berritzen hasi asmo dute. Arrobitxulo anbulatorio ondoko zelaian kokatuko den elkar-

gunea definitzeko aurrez eginiko parte hartze prozesuaren harira, "aurreproiektua oinarri hartuta, exekuzio proiektua idazteko lizitazioa egin berri dugu. Rehabite arkitekturak irabazi du. Dena ondo bidean, beraz, urte amaieran eskuan izango dugu exekuzio proiektua. Horrekin, urte hasieran obrak lizitatu ahalko ditugu".

Trantsizio ekosoziala

Ildo horretan, energia berriztagarrien arloan eginiko lan-keta nabarmendu dute. Alor horretan sortutako Sortalde komunitatea sortzen lagundu, haren bazkide laguntzailea izan eta harekin izenpetutako hitzarmenaren baitan, "Age-rialdeko teilatua laga diogu Sortalderi, bertan eguzki plalak jarri ditzan". Efizientzia energetikoaren baitan, Usurbilek dituen 2.255 argi puntu ingurutik %60an LED teknologia ezarri dute. 2025-26an %95era handitu asmo dute ehuneko hori eta horrekin, hurrengo bi urteotan, 193.000 eurotik 100.000 euro ingurura murriztuko da gastua, gobernu taldearen esanetan. Erronka horri lotutako azken proiektu bat ere nabarmendu dute udal gobernu taldeak. Uraren kudeaketan burujabe izateko bidean, filtrazio sisteman eginiko 900.000 euroko inbertsioari esker, %40tik %64ra handitu da Andatzatik datorren ur horren hornidura maila herrian; "4.400 biztanle ingururungana heltzen da gaur egun".

Auzoak

Auzo bizigarriak helburu, "Aginagan Elutx bidea egin, erdiguneko haur parkea berritu, eta Eliza Zaharreko konpon-



Tentsio handiko eremu izendatzeaz du Usurbil Eusko Jaurlaritzak.

ketak bideratzen ari gara". Aginaga biziberritzeko proiektu integralari ere heldu diote eta "emaitzak epe motzean ikusi ahal izango ditugu". Etxealdian irisgarritasun plana gauzatzen ari dira. "Momentuz, San Esteban kalea oinezkotu eta igogailuko obrak hasita daude eta martxa onean doaz". Santuenean, auzo planean jasotako hainbat jardue- ra abiarazi dituzte; tartean, auzo elkartearentzat frontoi ondoko lokal komunitarioa berritu dute. Kalezarren, "plaza oinezkotez bidean urratsak ematen ari gara eta ibilgailuen joan etorria arautu

da". Zubietan, Barazar ondoan egoteko espazio publikoa sortu dute.

Tentsio handiko eremua

Hauetz gain, azkenaldian hizpide izandako hainbat egitasmo ere ekarri dituzte gogora; Usurbil tentsio handiko eremu izendatzeko Eusko Jaurlaritzari eginiko eskaera eta horretarako, herriko etxebizitzet- buruz eginiko diagnosis eta hiru urterako plangintza. Tramitazio epean, jendaurrean dago eskaera. Tramitazio horren azken txanpan HAPOa da, bestalde, behin betiko onartzeaz. Horrez gain, indar-

keria matxistari lotuta, biktimei arreta, koordinazioa eta erreparazioa emateko tokiko bigarren protokoloa eta jaien eremuko eguneratu dute askotariko eragileekin lankidetzan. Kirolen alorrean, Mugiment proiektuari esker EAEko kiroldegietan sar daitezke usurbildarrak, Kirolari Txartela ere abiarazi dute eta "aurten, skate parka handitzeko obrak lizitatuko ditugu". Legealdi Planetik kanpo, "irisgarritasun unibertsalerako plana osatzeko prozesua, kale egoeran bizi direnen oinarriko beharrak asetzeko protokoloaren osaketa eta martxan jartzea edota hilabete behin, Udalaren jardunaren berri ematen duten kudeaketa txostenak esate baterako".

Legealdi lehen bi urteetako balantzea eta neurrien betetze mailaren berri eman- go duen aldizkaria banatuko du Udalak etxetik etxe uda os- tean.

**"%40TIK %65ERA
HANDITU DA,
ANDATZATIK
DATORREN UR
HORNIDURA MAILA
HERRIAN"**

**"LEGEALDIKO
LEHEN URTEON
BALANTZEAREN
BERRI EMATEKO
ALDIZKARI BAT
BANATUKO DA"**

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**
www.noaua.eus



Haranen eta Zubietan jokatu dira hainbat neurketa. ARGAKZIA: NOAUA

Finalerdietaraino heldu da Usurbil FT Donosti Cup txapelketan

30 herrialdeetako 900 futbolari gaztetxo lehiatu dira egunotan Donosti Cup txapelketan. Haietako hainbat neurketaren egoitza izan dira Harane eta Zubieta. Usurbil FTko bi talde aritu dira.

Donosti Cup

Usurbil FT-ren partidak

B13:

Parte hartzaileak:
Unax Errasti Torcida, Telmo Huizi Jauregi, Xabier Martin Recio, Aner Calvo Unanue, Chenxiang Zhang, Joanes Lope Garcia, Unax Lope Lizargarate, Eneko Arregi Gazpio, Ekhi Martin Gonzalez, Luken Etxabe Agirretxe, Enaitz Garcia Usandizaga, Mikel Sanchez Conde, Hodei Sarasua Galan, Martin Otaduy Sagarna, Eneko Isasa Mena, Eneko Garaiyurrebaso Urdanpilleta, Iba Kabe Kabe, Oier Jauregi Salaberria, Ruben Garcia Blanco, Ibai Enrique Etxeberria.

Finalerdiak:
Usurbil FT 0
AR Stars Academy 3

B14:

Parte hartzaileak:
Inar Arrillaga Oliden, Odei Agorreta Arrozpide, Xuban Karrera Ullate, Beñat Algorta Erro, Markel Alejo Goikoetxea, Peru Arrizabalaga Pikabea, Ekain Alejo Goikoetxea, Ekhi Nazabal Lizaso, Xabier Santos Martín, Hugo Perez López, Aiur Belaustegi Etxebarria, Beñat Arozena Alguacil, Haitz Oliva Etxaburu, Eñaut Agirreurreta Iparragirre, Haritz Herrera Fabrega, Ekhi Matxain De La Cruz, Eñaut Soroa Mitxelena, Martin Ayuso Iturain, Peru Arruti Arruti, Alain Maíz Durandegi.

Final hamaseirenak:
Usurbil FT 1
Ostadar SKT 2

Informazio gehiago donosticup.com atarian.

Multzoa eta lehen neurketa zehaztu diote Usurbil K.E. senior mutilen taldeari

2025-26 denboraldian lehen nazional mailan jokatu duen Usurbil Kirol Elkartearen senior mutilen taldeak zer multzotan jokatu duen, zeintzuk izango dituen lehiakideak eta lehen neurketan nortzuekin lehiatu beharko duten zehaztu du Espainiako Eskubaloí Federazioak.

Guztira sei multzo osatu dituzte. Saizar Usurbil K.E. C multzoan txertatu dute eta 9 zenbakia esleitu diote. Multzo horretan izango dituzte usurbildarrek taldeok: Loyola Indautxu, Ereintza, Trapagaran, Tarazona, Erromo, Zarautz, Egia Teila Fabrika, Tolosa, Zumaiaiko Pulpo, Barakaldo, Atarrabiako Beti-Onak, Bida-



Lehen nazional mailan arituko dira.

soa Irun, Eibar, Anaitasuna eta Uharte.

Lehen neurketan, Egia Teila Fabrikakoen aurka ariko dira.

Euskal Kopa

Lehen neurketa abuztuaren 22an jokatu dute Tolosa eskubaloí taldearen aurka. 18:15ean, Oiardon.



Uztailaren 20ra arte eskatu ahal izango da.

Kirolari txartela eskuratzeko azken egunak

Oiardo kiroldegian abonatzeko modu berri bat izango da aurrerantzean; Kirolari Txartela. Uztailaren 20ra arte eskatu ahal da. Abuztuaren 1etik hurrengo urteko uztailaren 31ra arteko indarraldia izango du. Abonatu arruntaren %60ko prezioa izango du, "abonuaren iraupena elkar-

teen ohiko denboraldira ego kitu" dute eta. Kirolari Txartela eskuratzen duenak eskubidea izango du parte hartzen duen elkarteko edo klubeko egutegi eta ordutegietan dagozkion kirol instalazioak erabiltzeko. Informazio gehiago Oiardo kiroldegian jaso ahal da.

www.artzabaljabetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo erdigunean 3 logelako etxebizitza eta garaje bat bat dauz kagu alokatzeko. Etxe osoko gelek argi naturala dute. Harremanetarako: 658706447.

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. 685707278

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldaria behar da. Astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa lanak edo ume zein helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil. Erreferentzia onak dauzkat. Goizetan 16:00ak arte lan egiteko aukera. 604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egiteko lan bila nabil. Zaintzaile titulua daukat eta interno moduan edo orduka lan

egiteko disponibilitatea. 631654743

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747446091.

Ostalaritzan edota garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 613586716

Orduka edo astelehenetik ostiralera eta egunez aritzeko lan bila nabil. Etxeko lanak, umeak zein helduen zaintzan aritzeko prestutasuna. 614.349 021.

BESTELAKOAK

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Ipar martxan erabiltzen diren bi makil salgai ditut. Berriak dira. Harremanetarako telefono zenbakia: 646 185 716

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

KzGuneko ikastaroak

Uztailaren 30era arte 09:00-13:00 artean irekiko dute KzGunea. Abuztuan itxita egongo da. Irailaren 1etik aurrera arratsalde, 16:00-20:00 artean irekiko dute.

Uztailak 23-30, 09:00-11:00

• "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Irailak 1-4, 18:00-20:00

• "PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".

Irailak 5-18, 18:00-20:00

• "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

Irailak 19-23, 16:00-18:00

• "LibreOffice Calc. Zure kalkulorriak sortu".

Irailak 24-30, 16:00-18:00

• "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiagorako:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

ZORION AGURRAK



Zorionak Haizea!! Haizea, abuztuaren 10a gerturatzen ari dela! Zortzi urte! Prestatu belarrik! Ze ondo pasako dugun eguna. Muxu asko familia guztiaren partez, bereziki Xune eta Noaren partez.

HILDAKOAK



Isidora Lizaso Alkorta
Uztailaren 8an hil zen, 95 urterekin.



Joxe Mari Portu Iribar
Uztailaren 14an hil zen 94 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

ASTEAZKENA 23

USURBIL 'Zero zabor' bisita gidatua

Usurbilgo hondakinen bilketa sistema azaltzen duen bisita gidatu honetan, atez ateko sistema, auzo konpostaguneak, ... ezagutuko dira gida baten laguntzaz. Bisita gidatua euskaraz egingo da.
10:00-11:15 Udaletxetik abiatuta.

OSTEGUNA 24

USURBIL 'Zaintzaren Usurbil' bisita gidatua

Usurbilgo zaintza ekosistemaren barruan dauden bi gunetara bisita gidatua.
10:00-11:15 Udaletxetik abiatuta.

LARUNBATA 26

USURBIL 'Salbatore Elizaren ondarea' bisita gidatua

11:00-12:15 Salbatore elizan.

IGANDEA 27

USURBIL 'Museo Irekia' bisita gidatua

11:00-12:15 Museo Irekia bisita gidatua.



Uztailaren 26an Salbatore Elizaren ondarea ezagutu ahal izango da.

Bisita gidatuek oporrik ez

Udan etenik ez dute izango 650 Usurbil Bizi herri egitas-motik antolaturiko bisita gidatuek. Hona hemen, iraile-ra arte programaturikoak:

Uztailak 23, asteazkena

10:00-11:00 'Zero Zabor' bisita gidatua. Udaletxetik.

Uztailak 24, osteguna

10:00-11:15 'Zaintzaren Usurbil bisita' gidatua. Udaletxetik.

Uztailak 26, larunbata

11:00-12:15 Salbatore Elizaren ondarea bisita gidatua.

Uztailak 27, igandea

11:00-12:15 Museo Irekia bisita gidatua.

Abuztuak 23, larunbata

11:00-12:15 Salbatore Elizaren ondarea (erdaraz).

Abuztuak 24, igandea

11:00-12:15 Museo Irekia bisita gidatua.

Irailak 7, igandea

10:00-13:30 "Usurbilgo Sagar Kultura: sagar jotzea". Informazio gehiago eta erreserbak: 650usurbilbizi.eus


Baba beltz txikiaren omenezko bilkura

Aurten abuztuaren 28an batuko dira, bazkaritarako, 14:00etan Saizar sagardotegian. Bazkalostean, kofradekide berri bat izendatuko dute. Bertara joan nahi duenak izena eman beharko du Saizar sagardotegira deituta, 943 37 39 95

Musika
Hamabostaldia,
Usurbilen

Abuztuaren egingo den 86. Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertuetako bat, Organo Zikloetako bat Usurbilen programatu dute urte luzez egin bezalaxe. Paolo Oreniren organo kontzertua iragarri dute abuztuaren 12an, arratsaldeko 20:00etan Salbatore Elizan. Baina ez da bakarrik egongo. Izan ere, Oreka Tx taldeko Harkaitz Martinez de San Vicentere eta Itziar Navaroren txalaparta eta ahotsa izango ditu bidelagun.

"J.S. Bach, Mozart, Liszt eta Widor-en lanak, eta inprobisazioak" eskainiko dituzte. Emanaldirako sarrera doakoa izango da. Informazio gehiago quincenamusal.eus atarian jaso ahalko duzue.



Paolo Oreni arituko da.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostiraletik - Larunbatera
Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27


Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

📞 943 634 536 🌐 www.goieko.com



www.noaua.eus



@noauaastekaria



@noaua



Noaua Aldizkaria



@noauatb

Txupina buru haundik
Jaien hasiera
Datozen egunetan
Badago aukera
Zubietar eo kanpoko
Zatoz gozatzer
Errespetoz bazatoz
Ongietorri zera



Umeetik hasi ta
Jubilatueta
Gazte eta helduak
Zatozte festara
Musika edo pilota
Zikero usaitara
Giro ederra dago
Azaldu plazara



GORA
SANTIYUAK!

Etxefero artian
Bertsolai kantuak
Oilasko biltzaileen
Dantzako goguak
Hurrengorarte agurra
Trakaren soñuak
Zubietarrak gera ta
GORA SANTIYUAK!!!

